

# KANALAK

Gure enpresa sortzeko **web orrialdea** sortuko dugu. Web orrialdea propioa izango da; hau da, guk hasieratik sortuko dugu.


Gure produktuak, guk sortutako makilak, **bakarrik** gure web orrialdean erosteko aukera egongo da. Hori dela eta, **kanal propioa** izango da.

**Hiru kanal** mota daude; lehenik eta behin, komunikazioaren aldetik, bai **web orrialdearen bidez**, bai gure **hitzaldien bidez**, bezeroak komunikatuko ditugu, horrela gure makilak ezagutu ahal izango dira. Web-orrialdearen bidez gure bezeroek informazio guztia jaso ahal izango dute, baita guk emandako hitzaldien bidez ere. Ondoren, **banaketari dagokionez**, bezeroek erositako makilak haien etxeetara bidaliko dizkiegu garraio-enpresa baten bidez (*Correos*), haientzat erosoago izan dezan. Hitzaldietan eta farmazietan makilak erosteko aukera izango dute ere. Azkenik, **salmenta** dela eta, bezeroek gure produktuak erosi ahal izango dute **interneten** bidez, **hitzaldien** bidez edota **farmazien bidez**.



Kanalak **5 faseetan** banatuta daude:

- **Pertzepzioa:** Pertzepzioan bezeroen arreta nola lortuko dugun adieraztea daukagu. Horretarako, makilak eta sortutako web orrialdea ezagutzera eraman behar ditugu. Helburu hauek lortzearen, kartelak sortuko ditugu eta hiritik kokatuko ditugu. Batez ere ospitaletatik hurbil, zahar-etxeetatik hurbil... jarriko ditugu; izan ere, leku horietan gure bezero potentzialak aurkitzen dira eta, beraz, bezero gehiago lortu ahal ditugulako. Hitzaldiak egingo ditugu ere bai ospitaletan, zahar-etxeetan..., eta bertan bezeroek makilei buruzko informazio guztia jasoko dute.





- **Ebaluazioa:** Bezeroek gure lana ebaluatuko dute, horregatik informazio ugari eman beharko diegu, hauek ziurtatzeko gure makilak benetan baliagarriak direla eta oso lagungarriak direla haintzat. Informazio hori bai web orrialdearen bidez, bai telefonoaren bidez, bai sare sozialen bidez, bai hitzaldien bidez jasoko dute. Hitzaldiekin batera, gainera, gure enpresa gehiago ezagutzera eramango dugu ere. Larrialdietarako makila bezeroei gustatzen bazaie, gure enpresa ospe ona lortuko du eta bezero gehiago lortuko ditugu.



- **Erosketa:** Erosteke biderik nagusiena web orrialdean aurkitzen da. Bertan makilaren informazioa, argazkiak eta prezioa aurkituko dute. Halaber, guri zuzenean galderak egiteko aukera ere izango dute. Hala ere, aurretik adierazi dugun bezala, farmazietan nahiz hitzaldietan produktua lortzeko aukera izango dute ere. Horrela, norbaitek teknologia berriekin ez bada oso ondo konpontzen, aukera gehiago izango ditu.



- **Entrega:** Bezeroek erositako produktuak etxera bidaliko dizkiegu, garraio-enpresa baten bidez (Correos). Horrela askoz erosoago izango da gure bezeroentzat, web orrialdearen bidez erostea erabaki baldin bazuten. Bestela, bai hitzaldietan, bai farmazietan jaso ditzakete makilak.



- **Salmenta ondorengoa:** Bezeroek produktuarekin pozik ez egotekotan edo arazo bat izatekotan (egoera txarretan heltzea produktua, besteak beste), beste berri batengatik aldatzeko edo produktua bueltatzeko aukera izango dute. Gainera, 2 urteko aseguruia izango dute, makila apurtzekotan edo produktuarekin arazo bat sortzekotan Larrialdietarako makila aldatu ahal izateko. Ondoren, produktua erosi eta gero, bezeroek makilak kalifikatzeko aukera izango dute gure web-orrialdean. Horrela hurrengo bezeroek beste erosleen iritzia ezagutuko dituzte, eta guk edozer aldatzeko edo hobetzeko aukera izango dugu ere.

